

Irurtzunen, bi mila eta bederatziko apirilaren zazpian, arratsaldeko zazpiak direnean, Ezohiko Bilkura egitearren Irurtzongo Udaleko Udalbatza, legeak agintzen duen moduan deituta, Batzar-gelan elkartu da Juan Jose Iriarte Vitoria alkate-lehendakaria buru dela. Bertan izan dira ondoren aipatzen diren zinegotziak:

Francisco Goicoechea Arbizu  
Jose Javier Recalde Maestre  
Saray Ongay García  
Jose Luis Viñas Estudillo  
Xabier Unanua Goicoechea  
Jose Peinado Cuesta  
Luis Enrique de la Calle Moreno  
Maria Nieves Uterga Juango  
Eduardo Murugarren Frances  
Francisca Arruabarrena Quintana

Eta idazkaria naizen hau, Santos Iragui Hualde.

## **AURREKO BILKURAREN AKTA ONETSI**

Bilkurari hasiera emanda, udalburuak deialdiarekin batera banatu den 2009ko martxoaren 31n egindako Bilkuraren Aktari zinegotziren batek oharren bat egin nahi ote dion galdetu du. Oharririk egin ez zaionez, aho batez onartu da.

## **ALKATETZAK HARTUTAKO ERABAKIEN IRAKURKETA**

2009ko apirilaren 2az geroztik Alkatezako eman dituen Ebazpenak irakurri dira eta, honenbestez, zinegotziak jakinaren gainean daude.

## **UDAL EKIPAMENDUKO ERAIKINA EGITEKO LANEN BEHIN BETIKO ESLEIPENA**

Udal-ekipamendurako eraikin bat eraikitzeke lanak kontratatzeari buruzko espedientean dagoen dokumentazioa aztertuta, eta, halaber, Hirigintza, Etxebizitza, Partzuergo eta Ingurumen Batzordeak 2009ko apirilaren 2an egindako bilkuran onartutako proposamena aztertuta, honako hau erabaki da aho batez: udal-ekipamendurako eraikin bat eraikitzeke lanak *Eycons Obras y Proyectos* enpresari kontratatzea hirurehun eta laurogeita hemeretzi mila hirurehun eta hirurogeita hamalau euroan -389.374,00 €- (BEZ barne).

## **HAUR HEZKUNTZAKO IKASTETXEA (0-3 URTE)**

Haur Hezkuntzako (0-3) ikastetxeari buruzko espedientean dagoen dokumentazioa aztertuta, eta, halaber, Hirigintza, Etxebizitza, Partzuergo eta Ingurumen Batzordeak 2009ko apirilaren 2an egindako bilkuran onartutako proposamena aztertuta, honako hau erabaki da aho batez:

1.- Hezkuntza Departamentuaren unitate-kopuruaren araberako plangintzarekin bat etorriko den azpiegitura sortzeko obra-proiektu bat gauzatzeko konpromisoa adieraztea.

2.- Adieraztea, halaber, azpiegiturak sortzeari nahiz egokitzeari buruzko aurrera begirako jarduerak Nafarroako Foru Erkidegoan haur-hezkuntzako lehen zikloa arautzen duen martxoaren 26ko 28/2007 Foru Dekretuak ezartzen dituen baldintzekin bat etorriko direla.

## **UDAL PLANA UC-2 UNITATEAN ALDATZEA BEHIN BETIKOZ ONARTZEA**

UC-2 Unitatean (Aldapa kalea, 12) Udal Plana aldatzeko proiektuari buruzko espedientean dagoen dokumentazioa aztertuta, eta, halaber, Hirigintza, Etxebizitza, Partzuergo eta Ingurumen Batzordeak 2009ko apirilaren 2an egindako bileran onartutako proposamena aztertuta, honako hau erabaki da aho batez, alegia Udalbatzako kide kopuru legalaren erabateko gehiengoz: UC-2009 Unitatean (Aldapa kalea, 12) Udal Plana aldatzeko proiektua, Fernando Andion Carballedak sustatua, behin betikoz onartzea.

## **INFORMAZIO BATZORDE BERRI BAT SORTZEA**

Gizarte Ongizate Batzordeak eta Emakumearen Arloak 2009ko apirilaren 2an egindako bilkuran onartutako proposamena aztertuta, honako hau erabaki da aho batez: Informazio Batzorde berri bat sortzea, orain arteko batzordearen edukiaren zati bat bereiziz; aurrerantzean, Emakumearen eta Berdintasunaren Informazio Batzordea deituko da.

## **ETB KANALAK SINTONIZATZEA**

Euskara Batzordeak 2009ko apirilaren 1ean egindako bilkuran onartutako proposamena aztertuta, jarraian jasotako adierazpen onartzea erabaki du Iriarte, Goicoechea, Recalde, Viñas, Unanua eta Murugarren

jaunen, eta Ongay eta Arruabarrena andreen aldeko bozarekin, eta Peinado eta De la Calle jaunen eta Uterga andrearen abstentzioarekin:

"Heldu den urteko apirilaren 3an, bertan behera geratuko dira teknologia analogiko bidezko telebista-emisioak, eta emisio digitala sartuko da indarrean (944/2005 Errege Dekretua, 2005eko uztailaren 29koa). Horrela, Lurreko Telebista Digitalak gaur egungo telebista analogikoa ordezkatu du, eta, beraz, gaur egun ikusten ditugun kateak ikusi nahi baditugu, gaur egun telebista-seinaleak jasotzeko dugun sistema aldatu edo egokitu beharko dugu. Etenaldi analogiko horrek telebistari ez ezik, irratitari ere eraginen dio; izan ere, litekeena da 2011rako irratia ere digitalizatzea.

Gaur egun ezinezkoa da Nafarroan Lurreko Telebista Digitalaren bitartez ETB1, ETB2 eta ETB3 sintonizatzea, eta, halaber, ezinezkoa da Nafarroako telebistaren kanalak alboko erkidegoetara igortzea. Hori dela-eta, zenbait alderdi politikok hainbat erreakzio kaleratu dituzte. 2008ko martxoaren 13an, Amanda Acedo Suberviola parlamentariak, Nafarroako Parlamentuko Sozialisten Talde Parlamentarikoak, mozioa aurkeztu zuen Nafarroako Parlamentuan; horren bitartez, Nafarroako Gobernuari eskatu zion azter eta kudea zezala ondoko autonomia-erkidegoekin hitzarmenak sinatzeko aukera LTDren bitartez Nafarroako kanalak haietan ikusteko, eta haietakoak gurean ikusteko ([7-07/MOC-00096](#)). Mozioa talde parlamentari guztiek onartu zuten, UPNk eta CDNk aurkeztutako zuzenketarekin.

Nafarroan aunitz dira ETB1 eta ETB2 ikusten duten euskal hiztunak; ETB1-i dagokionez, saioak euskara hutsean ematen dituen katea izanda, berebiziko garrantzia du euskararen normalizazio-prozesuan: telebista-kate hori Nafarroako euskaldunek eta euskaldun berriek ikusten dute, baita D hezkuntza-ereduko ikasleek ere.

Telebista-kate horiez gain, eta arestian aipatutako arrazoi horiengatik, berebiziko garrantzia dute beren programazioa euskaraz egiten duten Nafarroako telebista erregionalek: *Ttapi-ttapa Telebista*, *Xaloa Telebista*. Kate horiek aniztasunaren aldeko apustua dira, eta aniztasun horixe da, hain zuzen ere, lurreko telebista digitalaren Estatuko plan teknikoa onartzen duen uztailaren 29ko 944/2005 Errege Dekretuan xedatutako helburuetako bat. *“Halaber, telebista-eskaintza eta aniztasuna areagotzea ere ahalbidetzen da, herritarrek telebista-zerbitzuak aukeratzeko askatasuna indartuz, eta telebista-merkatu anitzagoa eta lehiakorragoa finkatzen da”*.

Horregatik guztiarengatik, Irurtzungo Udalak honako hau erabaki du:

Lehena.- Nafarroako Parlamentuak onartutako mozioaren arabera, Nafarroako Gobernuari eskatzen diogu sinatu beharreko hitzarmenak sina

ditzala Lurreko Telebista Digitalaren bitartez Nafarroan ondoko autonomia-erkidegoetako telebista-kanalak, eta, bereziki, Euskal Autonomia Erkidegoko ETB1, ETB2 eta ETB3 kateak jasotzeko.

Bigarrena.- Nafarroako Gobernuari mesedez eskatzen diogu telebista- eskaintzaren barnean sar ditzala saioak euskaraz ematen dituzten Nafarroako telebista erregionalak, eta, horretarako, aipatu kate horiei beharrezkoak dituzten lizentzi digitalak eman diezazkiela.”

De la Calle jaunak UPN udal-taldeko kideen abstentzioa azaldu du, eta esan du bai Parlamentuak eta bai Nafarroako Gobernuak dagoeneko horri buruzko akordioak hartu dituztela, eta gaiaren inguruko gestioak eginak dituztela. Alabaina, horiek oraindik zehaztu gabe daude, Euskal Autonomia Erkidegoko gobernuak oraindik ere eratu gabe baitago.

#### **ANIMSAko BATZAR NAGUSIRAKO ORDEZKARIA IZENDATZEA**

Ogasun, Industria, Langileak eta Barne Eraentza Batzordeak 2009ko apirilaren 2an egindako Bilkuran onartutako proposamena aztertuta, honako hau erabaki da aho batez:

1.- Juan Jose Iriarte Vitoria alkate-udalburua izendatzea Animsak eginen duen Batzar Nagusirako Irurtzungo Udaleko ordezkaria.

2.- Joaterik izanen ez balu, gai izanen da ordezkari hori beste udalkide baten esku uzteko, Sozietate Anonimoen Legeko testu bategineko 106-2 artikuluan aurreikusitakoa betez.

#### **PLAZAOLA TURISMO PARTZUERGOAN ESKUMENAK DELEGATZEKO MOZIOA**

Udalburuak azaldu du mozio hau premiazkotasunez aurkeztu dela eskaera Ogasun, Industria, Langileak eta Barne Eraentza Batzordeak apirilaren 2an egin zuen bileraz geroztik jaso dutelako. Jarraian mozioa irakurri du:

“Aspaldi ari gara aztertzen garai bateko Planaola trenaren ibilbidea berreskuratzea, eta hainbat azterlan eta proiektu garatu dira Plazarolaren Natur Bidea deitzen den horren inguruan. Aipatu bideak hainbat toki-entitate hartzen ditu barnean, Leitzatik Iruñeraino. 20 bat kilometro berreskuratu dira, Mugiro eta Gipuzkoako muga bitartean (Larraun, Lekunberri, Leitza), udalerrri horietan turismoa garatze aldera, eta, aldi

berean, aipatu Natur Bide horrek jaso, berreskuratzea, ustiatzea eta zaintzea ahalbidetuko lituzkeen baliabideak eta aukerak zaintzeko eta baliatzeko.

Lan-ildo horretan, Plazaola Turismo Partzuergoak (Araitz, Areso, Basaburua, Betelu, Imotz, Irurtzun, Larraun, Leitza, Lekunberri, Ultzamako eta Itza-Gulia Zendeako lurralde-eremuan kokatuta dauden toki-entitateek, eta inguruko enpresaburuen beste hainbat elkartek osatua) hainbat gestio eta bilera egin ditu tokiko erakunde publikoekin, autonomikoekin eta Estatukoekin al bait diru-laguntza gehien jasotzeko, eta Natur Bidea berreskuratzeke eta ustiatzeko dauden aukera errealak proposatzeko; betiere, ingurune ekonomiko eta kulturala, eta proiektuak barne hartzen dituen ibar eta eskualdeetako natur eremuak, eta egin litekeen edozein jarduera-proposamenen jasangarritasuna errespetatuz.

Plazaola Turismo Partzuergoak egindako gestio horien ondorioz, une honetan Nafarroako Gobernuaren aitzinean *Plazaolaren Natur Bidea* eremurako udalez gaindiko proiektu sektoriala bideratzeko aukera aztertzen ari da, arestian aipatutako helburuak betetze aldera; hau da, eremuaren balio naturalak, paisajistikoak eta kulturalak bultzatzea, eta aipatutako printzipioak oinarri hartuta eta errespetatuz, turismoa ustiatzeko.

Plazaola Turismo Partzuergoak aipatu udalaz gaindiko proiektu sektorial horren lanketa eta bideratzea sustatzeko lana bere gain hartzea prest egoteari kalterik egin gabe, eta kontuan hartuta ekimen hori ez dela Partzuergoaren estatutuetan jasotakoaren kontrakoa edo ez dagoela hortik kanpo, esan beharra dago *Plazaolaren Natur Bidearen* eremu osoa hartzen duen udalaz gaindiko proiektu sektorialaren esparrua Partzuergokoak ez diren udalerriei eta herriei ere eragiten diela.

Horrez gain, udalaz gaindiko proiektu sektorialean jaso litezkeen jarduerak aholkatzen dute (derrigortzen ez badute behintzat) jardute-eremuan dauden lurren titulartasuna toki-entitateenak izatea, edo, areago, toki-entitate guztiak bere barna hartuko dituen udalaz gaindiko beste entitate batena izatea (kontzejuak, udalerrriak, mankomunitateak, eta abar).

Horregatik guztiarengatik, komenigarria iruditzen zaigu Plazaola Turismo Partzuergoaren esku uztea *Plazaolaren Natur Bidea* udalaz gaindiko proiektu sektorialaren idazketa eta tramitazioa sustatzeko eta kontratatzeke ahalmena, proiektuak jaso ditzakeen laguntza eta subentzio guztiak eskatzeko. Halaber, aipatu udalaz gaindiko proiektu sektoriala lantze eta bideratze aldera egin beharreko gestio guztiak egiteko baimena ematea, gerora eta aipatu proiektua gauzatzeko lanei dagokionez, bete beharreko helburuak betetzeko egokien irizten den izaera juridikoa izanen duen beste Partzuergo edo Udalaz gaindiko Entitate bat sortzeko

aukera izanda, nagusiki Plazaolaren Natur Bidearen kudeaketarako, zaintzarako eta ustiapenerako. Partzuergo edo udalaz gaindiko entitate berri horretara bilduko lirateke Natur Bideak zeharkatuko lituzkeen lurraldeetako udalak, kontzejuak eta toki-entitateak. Horrez gain, Entitate hau izanen da udalaz gaindiko proiektu sektorial horretako lurra desjabetzearen onuraduna.

35/02 Foru Legeko 42.2 artikuluko arabera, udalez gaindiko proiektu sektorialen xedea da garraio sistemako azpiegiturak edo instalazioak, hidraulikoak, ingurumenaren kudeaketakoak, energia alorrekoak, telekomunikaziokoak eta antzeko gainerako guztiak arautzea, baldin eta beren eragina, beren tamaina, garrantzia edo ezaugarri bereziak direla medio, beraiek hartzen dituzten udalerriez gaindikoa bada.

Lege-agindu beraren 3. atalak xedatutakoaren arabera, udalez gaindiko plan eta proiektu sektorialetan biltzen diren determinazioak dagokion/en toki entitatearen/en planeamendurako lotesleak izanen dira. Hala dagokionean, beren hirigintza-planeamenduak egokitu beharko dituzte, berrikuspina edo aldaketa egiten dutenean, betiere berrikuspen edo aldaketa horren xedea zuzenean ukitzen badute aipatu udalez gaindiko tresnen determinazioek. Azkenik, aipatu 42. artikuluko 4. atalak dio Nafarroako Gobernuari dagokiola proiektu sektorial bat udalez gaindikoa dela deklaratzeko, foru lege honetan ezarritakoaren ondorioetarako.

44. artikuluko udalez gaindiko proiektu sektorialen edukia bera zerrendatzen du, eta 45. artikuluko lanketa- eta tramitazio-prozedura zehazten du, eta espresuki adierazten aipatu proiektuak ekimen publikokoak nahiz pribatukoak izan daitezkeela.

Bestalde, esan beharrik ere ez dago Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legeak aintzat hartzen duela toki-entitateek hainbat formatara elkartzeko duten ahalmena (mankomunitate, partzuergo, entitateen elkarte, eta abar).

Zaldutako guztiarengatik, honako hau erabaki da:

1.- Plazaola Turismo Partzuergoaren esku uztea Plazaolaren Natur Bidea udalaz gaindiko proiektu sektorialaren idazketa eta tramitazioa sustatzeko eta kontratatze ahalmena, proiektuak jaso ditzakeen laguntza eta subentzio guztiak eskatzeko. Halaber, aipatu udalaz gaindiko proiektu sektoriala lantze eta bideratze aldera egin beharreko gestio guztiak egiteko baimena ematea, gerora eta aipatu proiektua gauzatzeko lanei dagokionez, bete beharreko helburuak betetzeko egokien irizten den izaera juridikoa izanen duen beste Partzuergo edo Udalaz gaindiko Entitate bat sortzeko aukera izanda, nagusiki Plazaolaren Natur Bidearen kudeaketarako, zaintzarako eta ustiapenerako.

2.- *Plazaolaren Natur Bidea* udalaz gaindiko proiektu sektorialaren kontratazioak, lanketak eta izapidetzeak sortuko dituen gastu eta kostu

guztiei aurre egiteko konpromisoa eta betebeharra gure gain hartzea, udalaz gaindiko proiektu sektorialean jasotako datuen arabera, Natur Bidearen kilometro guztien gaineko gure udalerriari dagozkion kilometroekiko proportzioan. Konpromiso hori betetzeko, hartu beharreko neurriak hartuko dira xede horretara bideratuko diren aurrekontu-partidak erabilgarri izateko.

3.- Plazaolaren Natur Bideak zeharkatuko dituen lurretako toki-entitate guztiak bilduko lituzkeen Entitate berriarekin bat egiteko aukera eta egokitasuna aztertzea, aipatu entitate berri horren izaera juridikoa eta Estatutuak edo zuzenduko duen funtzionamendu-erregimena zehaztu ondoren.

4.- Erabaki honen berri ematea Plazaola Turismo Partzuergoari beharrezkoak diren ondorioetarako.”

Mozioaren premiazkotasuna bozkatuta, aho batez onartu da.

Jarraian, aurkeztutako mozioa bera bozkatu da, eta aho batez onartu da.

## **BATZORDEEN INFORMAZIOA**

Ez dago.

## **GALDE-ESKEAK**

Ez dago.

Aztergai gehiagorik ez dagoela, eta arratsaldeko zazpiak eta hogeit hamar minutu direnean, udalburuak bilkura amaitutzat jo du. Idazkari naizen honek bilkuraren Akta jaso, eta horren Egiaztapena egiten dut.